

Sin./Fdo.: ENRIQUE SAEZ DE LA ROSA - 2026-07-28
Ord./Sust.: MIREN GOTZONE AGUINAGA CAREAGA
GIZARTE KOHESIOA SUSTATZEKO ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE COHESIÓN SOCIAL

Sin./Fdo.: IGNACIO RODRIGUEZ PUERTAS - 2026-07-28
GIZARTE KOHESIOA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE COHESIÓN SOCIAL

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna sustatzeko saileko foru diputatuaren **FORU AGINDUA**, FUNDACIÓN BILBAO BASKET erakundeari dirulaguntza zuzena ematen diona "BizkaiLAB 2026" finantzatzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren eginkizuna da berdintasunaren, elkartasunaren, gizarte kohesioaren eta enpleguaren aldeko politika publikoak sortu eta bultzatzea Bizkaian, euren egoera pertsonala, gizarte egoera edo familia-egoera dela-eta bizimodu duin eta betea garatzeko zailtasunak dituzten herritarrei zerbitzuak emanez; eta arreta gune nagusi izan behar ditu, besteak beste, gizartetik baztertuta dauden edo horrela garatzeko arriskua duten pertsonen kolektiboa.

Aurrekoarekin lotuta, Fundación Bilbao Basket erakundeak dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkeztu zuen. Eskabide horretan, diruz lagundutako jardueraren jarduketan memoria xehatua jaso zen, bai eta "BizkaiLAB 2026" proiektua finantzatzeko haren aurrekontu banakatua ere.

BizkaiLAB 2026 proiektuaren helburu orokorra da Bilbao Basket Fundazioak sustatutako kirol- eta gizarte-berrikuntzako laborategi bat finkatzea, Bizkaiko haurren, gazteen eta familia- eta kirol-inguruneen ongizate integrala hobetzera bideratua, jarduera fisikoaren, nutrizioaren, atsedeenaren, osasun emozionalaren, adingabearen babesaren, berrikuntzaren eta gizarte-iraunkortasunaren inguruko prestakuntza-, sentsibilizazio-, prebentzio-, laguntza- eta ezagutza-transferentziako ekintzen bidez. Helburu hori bat dator proiektuak duen bokazioarekin: erreferentziatzeko gunea izatea lurraldeko klub, familia, profesional eta eragileentzat, kirola, osasuna eta gizarte-inpaktua integratuz.

ORDEN FORAL de la Diputada Foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, por la que se concede a la FUNDACIÓN BILBAO BASKET una subvención directa para el desarrollo del proyecto "BizkaiLAB 2026".

El Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia tiene como misión la generación e impulso de políticas públicas favorecedoras de la igualdad, la solidaridad, la cohesión social y el empleo en la sociedad de Bizkaia, mediante la prestación de servicios a aquellos ciudadanos y ciudadanas que, a causa de su situación personal, social o familiar, tengan dificultades para desarrollar una vida digna y plena, centrando el foco de su atención, entre otros colectivos, en el de las personas en riesgo o situación de exclusión social.

En relación con lo anterior, la entidad Fundación Bilbao Basket presenta solicitud de subvención que incorpora una memoria detallada de las actuaciones en las que consistirá la actividad subvencionada, así como un presupuesto desglosado de la misma para la financiación del proyecto "BizkaiLAB 2026".

El objetivo general del proyecto BizkaiLAB 2026 es consolidar un laboratorio de innovación deportiva y social promovido por la Fundación Bilbao Basket, orientado a mejorar el bienestar integral de la infancia, la juventud y sus entornos familiares y deportivos en Bizkaia, mediante acciones de formación, sensibilización, prevención, acompañamiento y transferencia de conocimiento en torno a la actividad física, la nutrición, el descanso, la salud emocional, la protección del menor, la innovación y la sostenibilidad social. Este objetivo se alinea con la vocación del proyecto de ser un espacio de referencia para clubes, familias, profesionales y agentes del territorio, integrando deporte, salud e impacto social.





“BizkaiLAB 2026” proiektuaren helburu zehatzak, besteak beste, hauek dira:

- Oinarritzko kirolari lotutako adingabeen, familien, klubuen eta eragileen ezagutzak, gaitasunak eta praktikak hobetzea garapen integralerako funtsezkoak diren gaitetan, bereziki jarduera fisikoan, nutrizioan, atsedenean eta osasun emozionalean. Espero den eraldaketa ez da informatiboa soilik, jokabidezkoa ere bada, parte-hartzaileek ohitura osasungarriagoak eta iraunkorrak txerta ditzaten eguneroko bizitzan eta kirol-jardueran.
- Haurren eta nerabeen babesa indartzea kirol-arloan, adingabeekin lan egiten duten erakundeek eta pertsonak erreferente, prestakuntza eta protokolo egokiak izan ditzaten bultzatuz, 8/2021 Lege Organikoan eta 2/2024 Legean ezarritako betebeharrekin bat etorriz.
- Bilbao Basket Fundazioaren, Bizkaiko klubuen, enpresen, unibertsitateen, ikerketa-zentroen, start-upen eta beste kirol-erakunde batzuen arteko lankidetzaren ekosistema egonkorra sortzea.
- Bilbao Basket Fundazioa erreferentziazko eragile gisa kokatzea haurren eta gazteen osasunean, kirol-berrikuntzan eta gizarte-eraginean, eta komunitate-bokazioa duten ekimenak gidatzeko gaitasuna indartzea.
- Kohesio soziala eta inklusioa hobetzea lurraldean, bereziki kolektibo ahulekin eta Bilboko auzoetan, hala nola Bihotz Kantxa auzoetan, egindako ekintzen bidez.

Proiektuaren xede-populazioa honako hauek osatzen dute nagusiki:

- Haurrak eta gazteak, kirol-klubei eta harrobiari bereziki lotutakoak.
- Familiak, ohitura osasungarriak hartzeko funtsezko eragile gisa.
- Bizkaiko kirol-klubak, teknikariak eta prestakuntza-langileak.
- Kolektibo kalteberak, prestakuntza- eta kirol-baliabide gutxiago dituztenak.

Proiektu honen iraunkortasunerako, honako ekintza hauek egin nahi dira:

- Jardunaldiak, tailerrak, masterclassak, kirol-klinikak eta haurren babesari, bendajeei, lehen sorospenei, nutrizioari, kirol-medikuntzari, hazkundeari, errendimenduari eta kirolaren joera berriei buruzko prestakuntza-gidak.
- Acciones específicas de sensibilización, formación y estructuración interna, entre ellas la elaboración de un protocolo que “impulsa el respeto en la cancha”.

Son objetivos específicos del proyecto “BizkaiLAB 2026”, entre otros, los siguientes:

- Mejorar de los conocimientos, capacidades y prácticas de menores, familias, clubes y agentes vinculados al deporte de base en cuestiones clave para el desarrollo integral, especialmente actividad física, nutrición, descanso y salud emocional. La transformación esperada no es solo informativa, sino también conductual, de modo que los participantes incorporen hábitos más saludables y sostenibles en su vida cotidiana y en la práctica deportiva.
- Fortalecer la protección de la infancia y la adolescencia en el ámbito deportivo, favoreciendo que las entidades y personas que trabajan con menores dispongan de referentes, formación y protocolos adecuados, en coherencia con las obligaciones establecidas en la Ley Orgánica 8/2021 y en el País Vasco la Ley 2/2024.
- Generar un ecosistema de colaboración estable entre la Fundación Bilbao Basket, clubes de Bizkaia, empresas, universidades, centros de investigación, start-ups y otras instituciones deportivas.
- Posicionar a la Fundación Bilbao Basket como agente de referencia en salud infantil y juvenil, innovación deportiva e impacto social, reforzando su capacidad para liderar iniciativas con vocación comunitaria.
- Mejorar la cohesión social e inclusión en el territorio, especialmente a través de acciones con colectivos vulnerables y en barrios de Bilbao, como las vinculadas a Bihotz Kantxa.

El proyecto tiene como población destinataria principalmente de:

- Infancia y juventud, especialmente vinculada a clubes deportivos y cantera.
- Familias, como agentes clave en la adquisición de hábitos saludables.
- Clubes deportivos de Bizkaia, técnicos y personal formativo.
- Colectivos vulnerables, con menor acceso a recursos formativos y deportivos.

Para la sostenibilidad de este proyecto se pretenden llevar a cabo las siguientes acciones:

- Jornadas, talleres, masterclass, clínicas deportivas y guías formativas sobre protección de infancia, vendajes, primeros auxilios, nutrición, medicina deportiva, crecimiento, rendimiento y nuevas tendencias del deporte
- Acciones específicas de sensibilización, formación y estructuración interna, entre ellas la elaboración de un protocolo que “impulsa el respeto en la cancha”.





- Kirol-ekosistemako, gizarte-ekosistemako, ekosistema akademikoko eta enpresa-ekosistemako eragileen arteko topaketa- eta truke-espazioak, mahai-inguruen, kirolaren summiten, erreferenteekin egindako topaketen eta klub, enpresa eta erakunde espezializatuekin partekatutako ekintzen bidez.
- Espacios de encuentro e intercambio entre agentes del ecosistema deportivo, social, académico y empresarial a través de mesas redondas, summits del deporte, encuentros con referentes y acciones compartidas con clubes, empresas y entidades especializadas.
- Gizarte- eta lurralde-izaerako ekintzak, bereziki kolektibo kalteberei eta Bilboko auzoei zuzenduak. Dokumentuak berariaz jasotzen du Bihotz Kantxa gizarte ekintzaren ildoak.
- Acciones de carácter social y territorial, especialmente dirigidas a colectivos vulnerables y a barrios de Bilbao. El documento recoge expresamente la línea de acción social Bihotz Kantxa.

Erakunde onuraduna irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da, eta haren helburu nagusia gizarte, hezkuntza eta kirol arloko proiektuak sustatzea eta garatzea da, kirolaren praktika eta balioen bidez.

La entidad beneficiaria es una entidad sin ánimo de lucro, cuyo objetivo principal es promover y desarrollar, mediante el instrumento de la práctica y los valores del deporte, proyectos de índole social, educacional y deportivos.

Kontuan izan behar da Bizkaiko Lurralde Historikoko Dirulaguntzen Araubide Orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2 artikulua, c) atalean, honako hau ezartzen duela: *"zuzenean eman ahal izango dira (...) interes publiko, sozial, ekonomiko eta humanitarioko arrazoiak edo deialdi publikoa zailtzen duten behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuk egiaztatzen dituzten bestelako dirulaguntzak"*.

Debe tenerse en cuenta que el artículo 20.2 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen general de Subvenciones del Territorio Histórico de Bizkaia, señala en su apartado c) que *"podrán concederse de forma directa (...) aquellas otras subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, económico y humanitario u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública"*.

Jarduketaren interes publikoa, soziala eta berritzailea justifikatuta dago; izan ere, gizarteratzeko prozesu espezializatuak laguntzeko proiektu berezia da, kirolaren eta proiektu profesional baten bidez, goimailako kirol-jardunari lotutako fundazio batek egiten baitu.

Resulta justificado el interés público, social e innovador de la actuación toda vez que constituye un proyecto singular de apoyo a procesos especializados de inclusión social a través de la figura del deporte y de un proyecto profesional, en la medida en que se presta por una fundación vinculada a la práctica deportiva de alto nivel.

Horrela, gizarteratzeko prozesuetan gazteei ematen zaizkien laguntzak sendotu nahi dira, ingurune komunitarioan integratzea ahalbidetuko duten laguntza-sare komunitarioak sortuz eta indartuz.

Se busca, de esta forma, consolidar los apoyos de las personas jóvenes en sus procesos de inclusión, mediante la creación y refuerzo de redes comunitarias de apoyo que permitan su integración en el medio comunitario.

Hortaz, proiektuaren interes publiko, sozial eta humanitarioak, erakunde eskatzaileak egindako jardueraren berezitasunak eta jarduketaren berezitasunak ezinezkoa egiten dute izapidea deialdi publikoaren bidez egitea.

Por lo tanto, el interés público y social del proyecto, la especificidad de la actividad desarrollada por la entidad solicitante y la singularidad de la actuación imposibilitan la tramitación por convocatoria pública.

Aurrekoa bat dator honako araudi honetan adierazten denarekin:

Lo anterior, de conformidad con lo previsto en la normativa siguiente:

- Bizkaiko lurralde historikoko diru-laguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko ("5/2005 Foru Araua") 20.2.c) artikulua.
- Artículo 20.2, c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, de Subvenciones del Territorio Histórico de Bizkaia ("Norma Foral 5/2005").
- Diru-laguntzen Araudia onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuko ("34/2010 Foru Dekretua") 52. artikulua.
- Artículo 52 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de la Norma Foral de Subvenciones ("Decreto Foral 34/2010").





Zuzenean emango den dirulaguntza horrek maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren gainerako artikulatua bete behar du (foru arau horrek arautzen du Foru Aldundiak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra), aplikagarri zaion guztian, batez ere II. titulua, emandako dirulaguntzak itzularazteko araubidea arautzen duena, eta IV. titulua (*"Diru-laguntzei buruzko arau-hauste eta zehapen administratiboak"*). Halaber, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea eta aplikatu beharreko gainerako administrazio-arauak bete behar ditu.

Halaber, ebazpen hau egiteko, kontuan hartu da maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa, Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kontuan izanda, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatua da laguntza hori emateko eskuduna, horrela xedatzen baitute 34/2010 Foru Dekretuak, 12.2 artikuluan, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuak, Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duenak (*"169/2014 Foru Dekretua"*), bigarren xedapen gehigarrian. Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 9ko 67/2026 Foru Dekretuak sartutako aldaketarekin bat etorritz.

Ebazpen honen izapidetzeari berariazko txostena erantsi zaio. Txosten horren arabera, dirulaguntza zuzen hau ez da Estatuko Laguntza, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ondorioz, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuari honako proposamen hau egiten zaio:

FORU AGINDUA

Lehenengoa. - FUNDACIÓN BILBAO BASKET erakundeari (IFZ: G95380945) zuzenean bostehun eta hirurogeita bost mila (65.000,00 €) euroko dirulaguntza ematea, 2023/0082 Proiektuaren, 232115 Programaren 45100 azpikontzeptuari dagokionez, Enplegu, Gizarte Kohesioa eta Berdintasun Sailko 0906 organikoan jasotakoa.

Bigarrena. - Diruz lagundutako jardueren hartzaile izan daitezke gizarte-bazterkeriako egoeran edo horren arriskuan dauden familia edo pertsonak, Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusiaren erabiltzaileak, "BizkaiLAB 2026" proiektuaren esparruan arreta jasotzen dutenak.

Hirugarrena. - Erakunde onuradunak eskatzen diren betekizun guztiak betetzen ditu, 5/2005 Foru Arauaren 12. Artikuluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren 13 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoak hain zuzen. Eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan jasotako debeku-egoeretak baten ez dagoela.

Esta subvención de concesión directa está sometida al resto del articulado de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Diputación Foral, en lo que le resulte de aplicación, y especialmente al Título II que regula el régimen de reintegro de las subvenciones concedidas, al Título IV, Infracciones y Sanciones administrativas en materia de subvenciones, así como a lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común y al resto de normas de carácter administrativo aplicables.

Asimismo, en la elaboración de la presente resolución se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Habida cuenta de la cuantía de la subvención, es competente para su concesión la Diputada Foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, conforme a lo dispuesto en el artículo 12.2 del Decreto Foral 34/2010, así como en la Disposición Adicional Segunda del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, de 16 de diciembre, de aprobación del Reglamento General Presupuestario (*"Decreto Foral 169/2014"*), de acuerdo con la modificación introducida por el Decreto Foral 67/2026, de 9 de julio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se modifica el Decreto Foral 169/2014.

Se incorpora a la tramitación de la presente resolución el informe específico que determina que la presente subvención directa no constituye Ayuda de Estado en los términos del artículo 107.1 del Tratado de funcionamiento de la Unión Europea.

En su virtud se eleva a la Diputada Foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad la siguiente propuesta de:

ORDEN FORAL

Primero. - Conceder a la entidad FUNDACIÓN BILBAO BASKET (NIF: G95380945) una subvención directa por importe de sesenta y cinco mil (65.000,00 €) euros, con cargo al Proyecto 2023/0082, Subconcepto 45100 del Programa 232115, recogida en el orgánico 0906 del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad.

Segundo. - Podrán ser destinatarias de las actuaciones subvencionadas las familias o personas en situación de exclusión social o riesgo de la misma, usuarios de la Dirección General de Cohesión Social, que sean objeto de atención en el marco del proyecto "BizkaiLAB 2026".

Tercero. - La entidad beneficiaria reúne los requisitos exigidos en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, así como en los artículos 13 y siguientes del Decreto Foral 34/2010. Y que no está afectada por ninguna de las prohibiciones del artículo 42 de la Norma Foral 4/2018 de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres.





Ebazpen honen izapidetzeari berariazko txostena erantsi zaio. Txosten horren arabera, dirulaguntza izendun hau ez da Estatuko Laguntza, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Laugarrena. - Diruz lagundutako proiektua nola burutu behar den ondoko hauetan ezarri da: ebazpen hau; 5/2005 Foru Araua; 34/2010 Foru Dekretua; eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea.

Aurrekoaren ondoreetarako, dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartuko dira indarreko araudiarekin bat etorritik behar bezala frogatzen diren gastuak, baldin eta beharrezkoak badira eta zalantzarik gabe egokiak badira proiektuaren edo jardueraren izaerarako eta ohiko garapenerako.

Bereziki, hauek ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- Banku-kontuetako interes zordunak
- Interesak, gainordainak eta administrazio-zehapenak nahiz zehapen penalak.
- Prozedura judizialen gastuak.
- Higiezinak erosteko finantza-gastuak.
- Dirulaguntza jaso behar duen jarduerari zalantzarik gabe lotu ezin zaizkion gastuak edota xedatutako epean egiten ez direnak

- Lizentzia informatikoak eskuratzeko gastuak
- Inbertsioak
- Tributuoak

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak dirulaguntzaren xedeari lotuta ez dauden gastuak identifikatzen baditu edo eskatu den gastua jardueraren izaerarako kualitatiboki edo kuantitatiboki egokia ez dela uste badu, doitu eta proportzionala iruditzen zaion zenbatekora murriztu ahal du gastua.

Bosgarrena. - Dirulaguntza bateragarria izango da helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuarenak izan, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak izan, dirulaguntza edo laguntza horiei buruzko arauak ezarritakoa ezertan eragotzi gabe.

Hala ere, 5/2005 Foru Arauaren 18.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, emandako diru-agintzaren zenbatekoak, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin du, inola ere, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.

Ebazpen honen izapidetzeari berariazko txostena erantsi zaio. Txosten horren arabera, dirulaguntza zuzen hau ez da Estatuko Laguntza, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Se incorpora a la tramitación de la presente resolución el informe específico que determina que la presente subvención nominativa no constituye Ayuda de Estado en los términos del artículo 107.1 del Tratado de funcionamiento de la Unión Europea.

Cuarto. - El proyecto subvencionado se desarrollará bajo las condiciones establecidas en la presente resolución, en la Norma Foral 5/2005, en el Decreto Foral 34/2010 y en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común.

A efectos de lo anterior, se considerarán gastos subvencionables aquellos que, siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, son necesarios y responden de manera indubitada a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad.

En particular, no se considerarán gastos subvencionables:

- Los intereses deudores de las cuentas bancarias
- Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.
- Los gastos de procedimientos judiciales
- Los gastos financieros derivados de la adquisición de inmuebles.
- Los gastos que no puedan identificarse inequívocamente con la actividad objeto de la subvención y/o no se realicen en el plazo establecido
- Los gastos de adquisición de licencias informáticas
- Las inversiones
- Los tributos

Si el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad identificara gastos no vinculados a la ejecución del objeto de la subvención o considera que el gasto solicitado no es adecuado, cualitativa y cuantitativamente a la naturaleza de la actividad, éste podrá ser reducido a la cuantía que se considere ajustada y proporcional.

Quinto. - La subvención será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que pudiera establecer la normativa reguladora de dichas subvenciones o ayudas.

No obstante, en cumplimiento de lo establecido por el artículo 18.3 de la Norma Foral 5/2005, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

Se incorpora a la tramitación de la presente resolución el informe específico que determina que la presente subvención directa no constituye Ayuda de Estado en los términos del artículo 107.1 del Tratado de funcionamiento de la Unión Europea.





Seigarrena. - Dirulaguntza ebazpen hau onetsi ondoren ordainduko da.

Dirulaguntza ordaintzeko, onuradunak egunean izan beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Onuradunari ez zaio bermerik jartzeko eskatuko, 34/2010 Foru Dekretuaren 30 artikuluan ezarritako kasuak ez baitira ematen.

Zazpigarrena. - Diruz lagundutako jarduerak barne hartuko ditu proiektuaren esparruan 2026ko urtarilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean garatutako jarduerak.

Zortzigarrena. - Dirulaguntza jasoko duen erakundeak berariaz eta idatziz onartu beharko ditu ebazpen honetan adierazitako dirulaguntzaren baldintzak, ebazpena jakinarazi eta HAMAR (10) EGUN BALIODUNEKO epean.

Bederatzigarrena. - Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak Bizkaiko Foru Aldundiaren berariazko baimena beharko du hasierako proiektuan aldaketa nabarmenak egin nahi baditu.

Aldaketa nabarmentzat joko da %10etik gorako aldaketa egitea dirulaguntza jaso duen erakundeak aurkeztutako aurrekontuko partida bakoitzerako onetsitakoari.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan egiten den aldaketa orok, betiere, dirulaguntzaren helburua betetzat jotzen bada, eta nolahi ere, beste administrazio edo erakunde batzuek, publikoek zein pribatuek, nazionalek zein nazioartekoek, ematen dituzten dirulaguntza edo laguntza aldi berean eskuratzeak dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezakete.

Hamargarrena. - Entitate onuradunak 2027ko martxoaren 31 baino lehen justifikatu beharko du diruz lagundu den ekintza gauzatu duela eta funtsak horretarako erabili dituela.

Justifikazio-sistema justifikazio-kontuarena izango da, gastuen ordainagirien bidez aurkeztutakoa. Hori guztiori Dirulaguntzei buruzko Araudia onesten duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 57. artikuluan ezarritakoari jarraituz egingo da. Horrela, amaierako memoria bat aurkeztuko da, lanen deskargu teknikoa eta ekonomikoa, fakturak, ordainketen banku-egiaztagiriak, proiektuaren kostu osoaren % 100ekoak, barne hartuta diruz lagundutako ekintzaren Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza eta gainerako erakunde finantzatzaileena, bai eta eskatzen zaion eta justifikaziorako beharrezkotzat jotzen den dokumentazio guztia ere.

Sexto. - El abono de la subvención se realizará tras la aprobación de la presente resolución.

Para proceder al abono de la subvención la persona beneficiaria deberá hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, tal y como se establece en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005.

No será exigible la prestación de garantía por parte de la persona beneficiaria, dado que no se aprecia la concurrencia de los supuestos detallados en el artículo 30 del Decreto Foral 34/2010.

Séptimo. - La actividad subvencionada comprenderá las actuaciones desarrolladas en el marco del proyecto durante el período comprendido entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2026.

Octavo. - La entidad beneficiaria de la subvención deberá aceptar expresamente y por escrito las condiciones de la subvención expresadas en la presente resolución, en un plazo de DIEZ (10) DÍAS HÁBILES desde la notificación de la misma.

Noveno. - La entidad subvencionada deberá recabar el consentimiento expreso de la Diputación Foral de Bizkaia para llevar a cabo cambios significativos en la ejecución de la acción con respecto a lo previsto inicialmente.

Se entiende por cambio significativo una variación superior al 10% de lo aprobado para cada partida del presupuesto presentado por la entidad subvencionada.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta y, en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones o ayudas otorgadas por otras administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales, podrá dar lugar a la modificación de la presente resolución de concesión.

Décimo. - La entidad beneficiaria deberá justificar, antes del 31 de marzo de 2027, la realización de la acción subvencionada y la aplicación de los fondos a dicha acción.

El sistema de justificación será el de cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto, de acuerdo con lo dispuesto por el artículo 57 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones. De este modo, se presentará una memoria final, incluyendo descargo técnico y económico de los trabajos, facturas, justificantes bancarios de los pagos, correspondientes al 100% del coste total del proyecto, que incluye la subvención de la Diputación Foral de Bizkaia de la acción subvencionada y la del resto de entidades financiadoras, así como a aportar cuanta documentación le sea requerida y que se considere necesaria para la justificación.





Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera behar bezala justifikatuta, beharrezkoak direnak eta zalantzarik gabe proiektuaren edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten diotenak.

Hamaikagarrena. - Erakundeak berariaz adierazi beharko du Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza ekonomikoa jaso duela, babestutako jardueren zabalkundea edo hedapena egiten duenean edo haiek argitaratzen dituztenean. Era berean, Aldundiaren izena eta logotipoa agertu beharko dira (Aldundiaren anagrama) eta honako esaldi hau gaineratu beharko da hitzez hitz: *"Programa honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du/Programa subvencionado por la Diputación Foral de Bizkaia."*

Hamabigarrena. - Bizkaiko gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren II. Tituluan ezarritakoaren arabera, erakunde onuradunak publikotasun aktiboari buruzko arauak bete egin beharko ditu, baldin eta lege horren 2. artikuluan aipatutako kasuren batean badago.

Hamahirugarrena. - Erakunde onuradunak honako arau hauetan ezarritako printzipioak eta betebeharrak bete behar ditu: 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa; 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu bateratua onartzen duena; eta 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko Legea.

Agiri guztietan, publizitatean, irudietan eta materialetan hizkuntzaren erabilera sexista eta emakumeen irudi bereizkeriazkoa edo estereotipo sexistak saihestu behar ditu, eta irudi egokia sustatu, balio zuzenak islatzen dituen: berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, ardura partekatua eta rolen nahiz genero-identitateen aniztasuna.

Halaber, dirulaguntza honen xedeko jarduera dela-eta egin daitezkeen datu-aurkezpenean sexuen arabera bereizketak egingo dira.

Hamalauugarrena. - Erakundeek laguntza jasotzen duten elkarte edo erakunde, pertsona fisiko edo juridikoek euskara erabili beharko dute diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan.

Pertsona edo erakunde onuradunek beren jardueraren berri herritarrei emateko erabiltzen dituzten liburuxka, kartel edo beste edozein euskarritan bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira.

Se considerarán gastos subvencionables aquellos que, siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, son necesarios y responden de manera indubitada a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad.

Undécimo. - La entidad deberá hacer constar expresamente la financiación de la Diputación Foral de Bizkaia en todas aquellas actividades subvencionadas que conlleven la divulgación, difusión o, en su caso, publicación de las mismas, incluyendo su denominación y logotipo, siendo éste el formado por el anagrama de la Diputación acompañado de la siguiente frase literal: *"Programa honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du/Programa subvencionado por la Diputación Foral de Bizkaia."*

Duodécimo. - La entidad beneficiaria deberá cumplir las exigencias de publicidad activa detalladas en el Título II de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, siempre y cuando se encuentre en alguno de los supuestos mencionados en el artículo 2 de la misma.

Decimotercero. - La entidad beneficiaria debe cumplir los principios y obligaciones establecidos en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de Mujeres y Hombres, en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres y en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

Toda la documentación, publicidad, imagen o materiales deberán emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.

Igualmente, se realizará una desagregación por razón de sexo en la presentación de datos que se pudiera efectuar con motivo de la actividad objeto de esta subvención.

Decimocuarto. - Las asociaciones o entidades, personas físicas o jurídicas receptoras de una ayuda de las entidades deberán utilizar el euskera en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada.

En todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado por las personas o entidades beneficiarias para dar publicidad de su actividad a la ciudadanía deberán utilizarse las dos lenguas oficiales.





Hamabosgarrena. - Laguntza jasotzen duen erakundeak ebazpen honetan edo aplikatu beharreko araudian ezarritako edozein baldintza betetzen ez badu, edo 5/2005 Foru Aginduren 33. artikuluan ezarritako kausaren bat gertatzen bada, Enplegua, Gizarteratzea eta Bertintasuna Sustatzeko Foru Diputatuaren foru agindu bidez, eta erakunde onuradunari aldez aurretik jakinarazita, bertan behera utziko da emandako dirulaguntza eta, beraz, jasotako zenbatekoak gehi aplikatu beharreko legezko interesak itzuli beharko ditu, bidezkoak izan daitezkeen bestelako akzioak ezertan ukatu gabe.

Hamaseigarrena. - 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, erakunde onuradunak bere borondatez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako dirulaguntza, azken horrek aldez aurretik eskatu gabe.

Kasu horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntza benetan itzuli arteko berandutze-interesak kalkulatuko ditu, aipatutako 76. artikuluan xedatutakoaren arabera eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Foru-dirulaguntza itzultzeko, onuradunak berak eskatuta, dagokion ordainketa-gutuna bidali beharko da, eta gutun hori, zuk eskatuta, dirulaguntza kudeatzen duen foru-zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da. Ordainketa-gutun horretan, itzuli beharreko zenbatekoa (nagusia eta interesak), ereduaren kodea eta sartzeko arrazoa jasoko dira, eta itzuli beharreko dirulaguntza ere aipatuko da.

Hamazazpigarrena. - Gizarte Kohesioa sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak lortu nahi diren helburuak betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren ikuskaritza, kontrol, errekerimendu eta ebaluazio jarduerak egin ahalko ditu. Horretarako, erakunde onuradunak erabateko laguntza eskainiko die zuzendaritzak aukeratutako pertsona edo erakundeei.

Erakunde onuradunaren eta dirulaguntzaren xedeari edo haren justifikazioari lotutako hirugarren pertsonen betebeharra izango da Foru Administrazioako organoek eta, Europar Batasuneko araudiarekin bat, finantza-kontrolleko eginkizunak esleituta dituzten organoei eskatzen duten laguntza ematea eta behar beste dokumentu aurkeztea. Eginbehar hori betetzeari uko egitea erresistentzia, aitzakia, traba edo ezetza izango da, 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan aurreikusten diren ondoretarako, bidezkoak izan litezkeen zehapenak alde batera utzi gabe.

Hamazortzigarrena. - 5/2005 Foru Aginduren 27. artikulua eta 34/2010 Foru Dekretuaren 53. artikulua ezartzen duenarekin bat etorritik, erakunde onuradunak hirugarrenekin azpikontratatu ahalko du diruz lagundu den jarduera, horren zenbatekoaren ehuneko 50 gainditzen ez bada. Azpikontratazio hori lotuak dauden pertsona edo erakundeei egin ahalko da; betiere, aipatu den 5/2005 Foru Arauko 27. artikulua arautzen duenarekin bat etorritik.

Decimoquinto. - En el supuesto de que la entidad beneficiaria de la ayuda incumpliera cualquiera de las condiciones establecidas en la presente resolución o en la normativa de aplicación, o se produjera alguna de las causas contempladas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005 mediante Orden Foral de la Diputada Foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, y previa audiencia a la entidad beneficiaria se dejará sin efecto la subvención concedida, por lo que vendrán obligadas a reintegrar los importes percibidos más los intereses legales que resulten de aplicación, sin perjuicio de las demás acciones que procedan.

Decimosexto. - De conformidad con lo previsto por el artículo 76 del Decreto Foral 34/2010, la entidad beneficiaria podrá proceder a la devolución voluntaria de la subvención concedida por la Diputación Foral de Bizkaia sin el previo requerimiento de esta última.

En este supuesto, la Diputación Foral de Bizkaia calculará los intereses de demora hasta el momento de la devolución efectiva de la subvención, conforme a lo dispuesto en el referido artículo 76 y según lo establecido en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005.

La devolución de la subvención foral a instancia de la propia persona beneficiaria de la misma se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago que, a su requerimiento, le será tramitada en las dependencias del servicio foral gestor de la subvención. En dicha carta de pago se consignará el importe a devolver (principal e intereses), código del modelo y motivo del ingreso haciéndose además referencia a la subvención a devolver.

Decimoséptimo. - La Dirección General de Cohesión Social podrá realizar las acciones de inspección, control, requerimiento y evaluación necesarias para garantizar el cumplimiento de las finalidades perseguidas, para lo cual la entidad beneficiaria prestará la máxima colaboración con las personas o entidades que la Dirección decida.

La entidad beneficiaria y las terceras personas relacionadas con el objeto de la subvención o su justificación estarán obligadas a prestar colaboración y facilitar cuanta documentación sea requerida por los órganos de la Administración Foral, así como a los órganos que, de acuerdo con la normativa comunitaria, tengan atribuidas funciones de control financiero. La negativa al cumplimiento de esta obligación se considerará resistencia, excusa, obstrucción o negativa a los efectos previstos en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, sin perjuicio de las sanciones que, en su caso, pudieran corresponder.

Decimooctavo. - Con base en lo previsto en el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005 y en el artículo 53 del Decreto Foral 34/2010, la entidad beneficiaria podrá subcontratar con terceras personas hasta un 50 por 100 del importe de la actividad subvencionada. Dicha subcontratación podrá realizarse con personas o entidades vinculadas, siempre de conformidad con lo regulado en el citado artículo 27 de la Norma Foral 5/2005.





Hemeretzigarrena. - Foru Administrazioaren dirulaguntzen araubide juridiko orokorrari buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan arau-hauste administratibotzat jotzen diren ekintzen eta ez-egiteen erantzuleak bertan araututakoaren arabera zehatuko dira.

Hogeigarrena. - Ebazpen honetan aurreikusi ez den guztirako, 5/2005 Foru Araua eta martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua aplikatuko dira, bai eta aplikatu daitezkeen beste edozein xedapen ere.

Hogeita batgarrena. - Datu pertsonalen tratamendua honako hauetan xedatutakoaren arabera egingo da: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa, eta 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.

Emandako datu pertsonalak tratatuko dira espediente hau eta harekin lotutako beste edozein espediente kudeatzeko.

Tratamenduaren arduraduna Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Sustatzeko Saileko Gizarte Kohesiorako Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia da.

Interesdunek beren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratatzeko mugatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, beren nortasuna egiaztatu ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean (Liburutegiko kristalezko eraikina): Erregistro eta Herriarren Arretarako Atalean (Aldundia, 7 - Bilbo, 48009), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua, Informazioaren Segurtasunerako eta Datuen Babeserako Atalari zuzendua.

Interesdunek eskubidea dute, halaber, kontrol-agintaritzaren aurrean erreklamazioa jartzeko, alegia, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren aurrean.

Era berean, aukera izango dute Bizkaiko Foru Aldundiko datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko, idazki bat bidalita Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Ataleko buroari (Kale Nagusia, 25 - 48009 Bilbo). DOP@bizkaia.eus.

Hogeita bigarrena. - Ahalmena ematen zaio Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputuari, ebazpen honetan xedatutakoa betearazteko eta betetzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Decimonoveno. - Las personas responsables de las acciones y omisiones tipificadas como infracciones administrativas en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la administración foral, serán sancionados de acuerdo con la regulación establecida en la misma.

Vigésimo. - Para todo lo no previsto en la presente resolución será de aplicación la Norma Foral 5/2005 y el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, así como cualquier otra disposición que pudiera resultar de aplicación.

Vigesimoprimer. - El tratamiento de los datos personales se hará con sujeción a lo dispuesto en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales y en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos).

Los datos personales aportados se tratarán con la finalidad de gestionar este y cualquier otro expediente relacionado con el mismo.

La responsable del tratamiento es la Dirección General de Cohesión Social del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia.

Las personas interesadas podrán ejercer sus derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación al tratamiento y oposición de sus datos de carácter personal, previa acreditación de su identidad, en el Registro General de la Diputación Foral de Bizkaia - Laguntza (Edificio de cristal de la Biblioteca): Sección de Registro y Atención Ciudadana (Diputación, 7 - Bilbao 48009), o a través de cualquiera de las formas establecidas en el art. 16.4 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, dirigido a la Sección de Seguridad de la Información y Protección de Datos.

Las personas interesadas disponen igualmente del derecho a reclamar ante la autoridad de control pertinente (Autoridad Vasca de Protección de Datos).

Así mismo, podrán contactar con la persona delegada de protección de datos de la Diputación Foral de Bizkaia dirigiendo un escrito a la Jefatura de la Sección de Seguridad de la Información y Protección de Datos, Gran Vía, 25 - 48009 Bilbao. DOP@bizkaia.eus.

Vigesimosegundo. - Se faculta a la Diputada Foral del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad para dictar cuantas disposiciones resulten necesarias para la ejecución y cumplimiento de lo dispuesto en la presente resolución.





Hogeita hirugarrena. - Ebazpen hau erakunde onuradunari jakinaraziko zaio. Era berean, ondokoei ere komunikatuko zaie: Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna sustatzeko saileko Zerbitzu Orokorretako zerbitzuari eta Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio zerbitzuari. Era berean, Ogasun eta Finantza Saileko fiskalizazio Zerbitzuari dagozkion txosten ekonomikoak helaraziko zaizkio.

Hala ere, zuk zeuk ebatziko duzu egokiena.

Vigesimotercero. - Notificar la presente resolución a la entidad beneficiaria y comunicarla al Servicio de Servicios Generales del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad. Asimismo, se dará traslado de la misma y de los informes económicos correspondientes al Servicio de Fiscalización del Departamento de Hacienda y Finanzas.

No obstante, Vd. resolverá lo más conveniente.





I. ERANSKINA

PARTIDAK	GUZTIRA
ZUZENEKO KOSTUAK	
LANGILE-GASTUAK	
Soldatak eta soldatak	34.000,00€
Karga sozialak:	11.900,00€
Dietak eta beste kalte-ordain batzuk	
KANPOKO ZERBITZUAK	
Profesionalak kontratatzea	2.478,00€
Publizitatea eta harreman publikoak (inprimategiak, cateringa, mezularitza, sarrerak)	4.532,00€
Aseguru-primak (erantzukizun zibila,...)	3.722,00€
Alokairuak (espazioak, agertokiak...)	
Garraioak	780,00€
Hainbat erosketa (ekipazioak)	5.988,00€
Kanpoko beste zerbitzu batzuk	
ZEHARKAKO KOSTUAK	
Zeharkako gastuak: Langileak/kanpoko zerbitzuak/ura/argia	1.600,00€
BB LAB 2026 PROGRAMAKO GASTUAK GUZTIRA	65.000,00





GASTUEN ZERRENDA SAILKATUA

GASTUAREN KONTZEPTUA: (zehaztu gastu-kontzeptuetariko bakoitzerako)

(Kopuruak eurotan)

13



ANEXO I

PARTIDAS	TOTAL
COSTES DIRECTOS	
GASTOS DE PERSONAL	
Sueldos y salarios	34.000,00€
Cargas sociales	11.900,00€
Dietas y otras indemnizaciones	
SERVICIOS EXTERIORES	
Contratación de profesionales	2.478,00€
Publicidad y relaciones públicas (imprentas, catering, mensajería, entradas)	4.532,00€
Primas de seguros (responsabilidad civil,...)	3.722,00€
Alquileres (espacios, escenarios...)	
Transportes	780,00€
Compras diversas (equipaciones)	5.988,00€
Otros servicios exteriores	
COSTES INDIRECTOS	
Gastos indirectos: Personal/ servicios exteriores/agua/luz	1.600,00€
TOTAL GASTOS PROGRAMA BB LAB 2026	65.000,00





ANEXO II

ENTIDAD:

ESTADO DE GASTOS E INGRESOS

PERIODO

:

A) GASTOS		B) INGRESOS	
1 Aprovisionamientos		1. Importe neto de la cifra de negocios	
a) Consumo de mercaderías (600, 610)		a) Ventas (700,701,7 03)	
b) Consumo mat primas y otras materias consumib(601, 602,611,612)		b) Prestaciones de servicios (705)	
c) Trabajos realizados por otras (607) empresas			
d) Deterioro mercaderías, materias primas y otros aprovisio (693).		2. Variación de existencias (71) (aumento)	
2 Variación de existencias (reducción) (71)		3. Otros ingresos de explotación	
3 Gastos de personal		a) Ingresos accesorios y otros de gestión (75)	
a) Sueldos, salarios y asimilados (640)		b) Subvenciones de explotación (740, 747))	
b) Cargas sociales (S.Social a cargo entidad, otros) (642)		Diputación Foral Bizkaia	
		Ayuntamientos	
6 Otros gastos de explotación		Gobierno Vasco	
a) Servicios exteriores (62)		Otros	
Arrendamientos y cánones			
Reparaciones y conservación		4. Imputación subvenc de inmovilizado no financiero (746)	
Servicios profesionales			
Independientes			
Transporte		5. Ingresos financieros (76)	
Prima de seguros			
Servicios bancarios y similares			
Publicidad, propaganda y relaciones públicas			
Suministros agua, luz y otros			
Otros servicios			
b) Tributos (63)			
c) Pérdidas, deterioro y variac. provisión operac. Comercial (69)			
d) Otros gastos de gestión corriente (659)			
7 Amortización del inmovilizado (68)			
8 Gastos financieros (66)			
TOTAL GASTOS		TOTAL INGRESO	
Superávit		Déficit	





ANEXO III

RELACIÓN CLASIFICADA DE GASTOS

CONCEPTO DE GASTO: (elaborarlo para cada uno de los conceptos de gasto)

(cifras en euros)

Fecha Factura	Proveedor /Nº de factura	Factura			Imputado al proyecto		Fecha pago
		Base imponible.	IVA soportado	Total (€)	%	Importe (€)	
.....							
.....							
.....							
.....							
.....							
.....							
.....							
.....							
.....							
.....							
				Total gasto imputado			





ANEXO IV

RELACIÓN CLASIFICADA DE INGRESOS

CONCEPTO DE INGRESO: (elaborarlo para cada uno de los conceptos de ingreso)
(cifras en euros)

[illegible]